



Raimundo el Canasteroren kontrako auzia ibilbide penaletik kanpo utzi du Nafarroako Auzitegiak

BIDANE BELOKI EZKER :: 01/04/2025

Lizarrako epaitegira itzuli da auzia eta bertan delitu arinengatik epaituko dituzte eta gehienez hiru hilabeteko isunarekin zigortu.

Raimundo el Canastero taldea ez dute bide penaletik epaituko iazko Lizarrako jaien eztabaiden kontura, alkateari egindako *Beef d 'Alda* abestiarengatik. Nafarroako Auzitegiak errefusatu du UPNk eta Marta Ruiz de Alda alkateak taldea gorroto delitua egotzita epaitzeko asmoa; auzitegiak ebatzi du epez kanpo dagoela.

Hartara, auzia Lizarrako epaitegira itzuli du eta bertan delitu arinen epaiketa egingo dute. Gehienez hiru hilabeteko isunarekin zigortu ahalko zaie bertan, eta delitu arina denez, epaiketa egin arte ez da jakingo zein den egindako akusazioa.

Inplikatuak hala onartu zuten hasieratik eta alkateak ez zuen errekurtsorik aurkeztu. Gerora, urtarrilaren amaieran, Ruiz de Aldaren eskaerak epaiketa atzerarazi zuen, akusazio larriagoak egotzita. Prozesua beste maila batera igotzeko gorroto delitutzat epaitzea eta espetxe-zigorra jaso ahal izatea proposatzen zuen alkateak.

Baina, auzitegiak ebatzi du aurretik egin behar zutela eskaera hori dagokion erreforma-errekurtsoa eta apelazio-errekurtsoa jarrita. Beraz, bertan behera geratzen da eskaera eta Raimundo el Canasterok ez du espetxe zigorrik jasoko.

Raimundo el Canasteroren kontrako auzia ibilbide penaletik kanpo utzi du Nafarroako Auzitegiak - Nafarroa - euskalerraierratia.eus

<https://eh.lahaine.org/raimundo-el-canasteroren-kontrako-auzia>